

BALIO PROPOSAMENA

Telefono dei baten bidez erosketa egin ahal izateko zerbitzua sortu dugu. Gaur egun online erosketa guztiak gailu elektronikoko bidez egiten dira, eta badakigunez adineko gehienei zaila egiten zaiela horrelako erosketak egitea, zerbitzu hau sortu dugu.

Gure helburu nagusia, eskainitako zerbitzuak merkatuan daudenekiko desberdinak eta osatuagoak izatea izan da gure espazioa bilatzeko. Lehenik eta behin azpimarratu nahi dugu ez dela km 0ko garraio bat soilik, elikadura duen garrantzia dela eta bereziki adinako jendearentzat, gure zerbitzuak dietista bat du barne nahi izatekotan. Modu horretara bezero bakoitzak osasungarria diren erosketak egin ditzazke bere egoerari egokituta. Hau da bereziki beste enpresetatik desberdintzen gaituena, nahiz eta beste ezaugarri nabarmenak eduki. Hauek dira besteak beste: bezeroekin harreman estua, produktuaren kalitatea (ahal den neurrian biologikoa), berehalako bidalketa, etxe bakoitzaren arabera bere lekuan jartzeko zerbitzua etab...

Bertakok duen zerbitzuen eskaintza zabalak beste merkatuan dauden lehiakideek asetzen ez dituzten beharrak identifikatu ditu merkatuan gure lekua bilatzeko. Adibidez, elikadura on batekin gaixotasunak sahiestea, bakarrik bizi den jendearekin harremana estutu, banakako segmentua eginez (zoritarrez gizartean geroz eta jende gehiago bizi da bakarrik), kolak zutik itxaroten sahiestea.

Gure enpresaren alderdi positiboak nabarmentzeko hona hemen erreflexio, idea eta akzio azpimagarri batzuk, zer garen hobeto ulertu dadin.

Betiko arraindegi, harategi eta frutadendetan egingo ditugu erosketak bi arrazoi hauengatik: Alde batetik, garrantzitsua iruditzen zaigu lekuko dendek saltzen dituzten elikagaiak erostea, kalitate onekoak direlako nahiz eta garastiagoak izan. Bestetik, Donostiako dendetan geratzen da dirua eta modu horretara ekonomia zirkularra bultzatuko genuke, bertako dendak lagunduz.

Alderdi positiboekin jarraituz, banaketak bizikletaz egingo ditugu, horrela ez bait dugu karbono dioxidorik sortuko eta ez diogu lur planetari minik egingo.